

Merkatuaren segmentazioa

Gure bezeroak Espainian dauden elbarrituak dira, baina ez edozein elbarritu. Gure “elbarritu” kontzeptuak gurpildun aulkian dauden edota indarrarekin nahiz mugimenduarekin lotutako ezintasun fisikoa duten pertsonak hartzen ditu bere baitan, inolako sexu bereizketarik gabe. Dena den, gure produktua desgaitasun-mailaren araberako bereizketa egingo dugu. Horrela sailkatuko dugu:

- 1. maila (%0): ezin dezakete gure produktua erosi.
- 2. maila (%1etik %24ra): desgaitasun arina, gure produktua eros dezakete. Besoaren bertsio oso sinplea eskainiko zaie.
- 3. maila (%25-%49): neurrizko desgaitasuna dute. Besoaren bertsio sinplifikatua eta ekonomikoagoa eskainiko zaie.
- 4. maila (%50-%75): desgaitasun larria dute. Gure produktuaren bertsio estandarra eskainiko zaie.
- 5. maila (%75<): desgaitasun oso larria dute. Kasu berezi hauetan, besoaren bertsio konplexuagoa eta espezifikoagoa eskainiko zaie. Hauentzat laguntza bereziak lortzen saiatuko gara.

Hala ere, salbuespenetara egokituko gara, eta maila altuagoko besoa beharrez gero, egiteko prest egongo gara, beti ere dagozkion frogak egin ondoren.